

[b]

BARREN

ELGOIBARKO ASTEKARIA

628. zkia.
XV. urtea
2007ko irailaren 28a

Jesus Gerenabarrena, erlezaina

**“Erleei ez genieke
beldurrik izan behar”**

UDAL ZERBITZU BERRIAK

HAUR ETA NERABEENTZAT EKIPAMENDUAK

INAUGURAZIOA: Urriaren 4an 19:00etan, zatoz eta ezagutu itzazu!



Ludoteka:
5-12 urteko haurrentzat
Asteleheneretik ostiralera
16:30etik 19:30era zabalik
Irekiera eguna: urriak 8



Gabriel Krutzelaegi, 6
Tel.: 943 74 88 83
e-posta: ludoteka@elgoibar.org



Ordubegi eta eskaintza
zabalagoarekin

GAZTE INFORMAZIO GUNEA

Kultur etxeko 2. solairuan
Nafarroa plaza, 3
20870 ELGOIBAR
Tel.: 943 74 14 61
e-posta: gib@elgoibar.org
www.elgoibar.org

Ordutegia:
Asteleheneretik ostiralera:
17:00etatik 20:00etara
Astelehenak, asteazkenak eta ostiralak:
10:30etik 13:00etara



Elgoibar Udalea



Elgoibar Gurea



Gaztelekua:
13-18 urteko nerabeentzat
Asteartetik igandera
17:00etatik 20:00etara zabalik
Irekiera eguna: urriak 6



Gabriel Krutzelaegi, 4
Tel.: 943 74 32 28
e-posta: gaztelekua@elgoibar.org



RENAULT
vehiculos comerciales

Zuk beste sinisten dugu zure negozioan eta lagundu egin nahi zaitugu.

Azken belaunaldiko injezio zuzeneko motor potenteagoak.

Kangoo



Trafic



Master



Autonomo edo enpresaria bazara gure ibilgailu komertzial guztietan:

• %23ko deskontua*.

• Finantziazio baldintza bikainak*.

* Autonomo eta enpresarietarako eskaintza berezia 07-08-09 arte. Ezin zaila beste promozioekin gehitu. Kostur diren modeluak: Kangoo Express Comfort, Trafic Furgoneta Labarra Normala eta altzarutako Master Furgoneta Eraina. Renault ibilgailu komertzialen kategorian: konsumo mixtoa (l/100) 5,3tik 8,9ra. CO₂ lehorta (gr/km) 139tik 235era.



RENAULT
AUTOBERRI

ARRASATE - AZPEITIA - ELGOIBAR - IRUN - TOLOSA



SARE GURRUTXAGA

Aló Aitzol! Urrunetik jarraitzen diat mezu hau bidaltzen. Urrunetik begiraten diat horra, begi berdinekin, baina begirada ezberdinarekin. Mundura begiratzeko beste modu bat irakatsi zidak urruntasun honek. Begiratzetik ekitera bidea dagoen arren, hortik hasiko nauk, begiratzetik.

SAPRENDEH izeneko gobernuz kanpoko erakundeak hurbildu naik gertutik ezagutzen ez nian errealtitate batetara, adimen urritasunera, hain zuzen. 33 neskatok eta mutikok osatzen ditek hemengo gure familia. Bakoitzak mundu bat ezkututzen dik beren begitxoan ostean, ulertzea kostatzen zaigun mundu bat.

Ez diagu ulertzen zergatik egiten duten garraxi bapatean, edo zergatik ematen duten besarkada askaezin bat inongo arrazoirik gabe, edo atximurka hori, edo irribarre lotsati hura, jolasteko irrika, bakarrik egoteko beharra. Ez diagu ulertzen. Gure bezalakoak izan daitezten eskatzen zieagu, beraiek diren bezalakoak direla onartu ordez.

Gizarteratzean lan asko egiteko dagoen arren, ezin ditiagu nahastu "gizarteratzea" eta "aldatzea". Guztion gizartean guztiok diagu garen bezalakoak izateko eskubidea, aldatzeko beharrik gabe.

Honaino etorri behar izan diat pertsona berezi hauek nolakoak diren ezagutzeko, %100 naturalak, filtrorik gabeak, guztiz puruak. Asko erakutsi zidatek, nik beraiei baino askoz gehiago.

ZOZOAK BELEARI...



AITZOL GARMENDIA

Mundu miresgarri bat zagon begirada bakoitzaren atzean. Lur-sail zabalak, amaigabeak, inguruari erakusten diogun eskaparate honen beste aldean. Kezkatzten nain agertu nahi dinagun erakusleioha atontzen igarotzen dugun denborak.

Itxura fisikoaren moldaketa, aitormen eta inputso inibituak, tabuen kutxan gordetako afirmazioak, modako komentario, esaldi eta jokaerak. Dena, gizarte "plural" honen arrastoan sartzeko.

Errekonozimendu-gosez bizi gaitun, eta taldearen parte izateak sortzen digun babes ezinbesteko jotzen dinagu. Era berean luzeago hazten diren porruen buruak moztuz, edo guk hartutako erabaki ezberdinak kritikatu. Baina iritzi eta erabaki hauek gure-gureak ote ditun?

Bitartean, sentimentu eta sentsazio, naturaltasun erakustaldi brutala hire laguntxoek gure gizarte inibituari emateko dutena. Bigarren intentziorik gabe, gidoiari jarraitu gabe. Besarkada estu baten bitartez beren itzala iltzatuz gure enborrean betirako.

Honen ostean, ia gai garen, bi aldiz pentsatu gabe gogortasunak baztertze eta axola zaigunei izatea leuntzeko. Merkea baitun maite zaitut, behar zaitut, onena zara edo ze guapa zauden ondokoari esatea.

Aska ditzagun barruak!

«GKE batek hurbildu naik adimen urritasunera»

SARE

«Mundu bat zagon begirada bakoitzaren atzean»

AITZOL



ATZERRIKO HIZKUNTZAK EZAGUTZEN EZ DITUENAK
EZ DAKI EZER ABERRIKO HIZKUNTZAZ



Joham Goethe

Gurean jarraituko dugu!

Atzo, irailak 27, 21 lagun (4 eskualdekoak) epaitu zituzten. Gasteizen, 2006ko azaroaren 29an Luku herrian egiten ari diren Abiadura Handiko Trenaren obretan kateatzeagatik. Horietako bat gure taldekidea da. (Laster beste batek ere izango du epaiketa).

Kateaketak obrak gelditu zituen egun erdiz. Horren ondorioz, txapelgorriak etorri, 21ak identifikatu eta orain fiskalak desobediencia zibileko ekintza honegatikordena publikoaren nahasmendu delitua egotzi diete. Burututako kateaketa hori, Urbinan aurreko urtean obren hasierari aurre egiteko sortu zen erresistentzia gunetik egin zen, erresistentzia gunehonek erresistentzia eta desobediencia zibilaren bidetik ekintzak jorratu zituen.

Abiadura Handiko Trenaren lanak salatu eta oztopatu, txikizioaren aurkako jarrera argi eta ozena azalduz. Gure us-tez auto-organizazioa eta borroka dira gizarte eredu hau aldatu eta proiektu txikitzaile guztiak gelditzeko giltza. Gu gure esku dagoen dena egiteko prest gaude, ez gaituzte isilduko, ez beldurtuko, beraien isun, zigor eta atxiloketekin. Gurean jarraituko dugu munstro hau gelditu arte.

Bukatzeke jende guztia animatu nahi dugu garapenaren aurpegi guztiei or-

tzak erakustera (AHT, autopista, bariante, temika, urtegi,espekulazio...) eta besarkada handi bat luzatu ltoizko urtegiari ortzak erakustearren abuztuan atxilotu zuten Julio solidarioari. Aupa "Mattin" eutsi Gogor. Txikizioa gelditu, desarrollismoari kaña!

KOELLO 104

Euskal preso politikoaren egoera

Egun kolektiboan 608 preso osatzen dute. Espainia, Frantzia, Ingalaterra eta Kanadako espetxeetan sakabanatuta daudenak. Kondenak oso osorik beteta izan arren, 16 senidek preso jarraitzen dute oraindik. 12 senide gaixotasun larriekin ditugu (8 arazo fisiko larriekin eta beste 4 arazo psikologikoekin). Gipuzkoako herrialdean 255 euskal preso politiko ditugu, horietatik hiru senide gaixotasun larriekin.

Frantziako eta Espainiako Estatuak indarrean duten sakabanaketa politikak euskal preso politikoaren nahiz senide eta lagunen eskubideak urratzen ditu etengabe. Amaigabea da urratzen dituen eskubideen zerrenda.

1. Tortura eta tratu krudelik ez: isolamendu eta jipoiarik ez.
2. Osasun eskubidea: preso gaixo larriak kaleratzea.

3. Komunikazio eskubidea: interbentzio eta mugarik ez.

4. Hizkuntza eskubidea: euskaraz bizitzeko eskubidea.

5. Hezkuntza eskubidea: ikasteko trabarik ez.

6. Amatasun eta aitatasun eskubidea.

7. Askatasunerako eskubidea.

8. Defentsarako eskubidea.

9. Euskal preso politikoaren kolektibo gisa, Euskal Herrian eta elkarrekin bizitzeko eskubidea: mintzakidetzaren aitortza, eztabaida eta erabaki gunetan parte hartzeko aukera eta askatasuna.

Eskubide guztien bermea=estatus politikoa. Horretarako ezinbestekoa da frantziar eta espainiar Estatuak eskubide urraketarekin amaitzea, sakabanaketa politikoa behingoz amaiera ematea. Euskal preso politikoaren egoera gero eta larriagoa da. Hil ala biziko egoera batean daude, eta honekin amaitzea derri-gorrezkoa delako, zure konpromisoa beharrezkoa da. Horretarako zita bat dugu hileko azken ostiraletan.

Irailaren 28an, zure konpromisoa beharrezkoa delako, Etxeretek antolatutako azken ostiraletako enkarteladetan espero zaitugu.

ELGOIBARKO ETXERAT

E-POSTA

barren@elgoibarkoizarra.com



BARREnek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: **izen-abizenak**, **NAN** eta **telefono zkia**.



barren

Nafarroa enparantza, 2 • 20870 ELGOIBAR
☎ 943 74 41 12 • Faxa: ☎ 943 74 37 04
E-posta: baren@elgoibarkoizarra.com
Publizitate: ☎ 943 74 37 04 • E-posta: baren.publi@elgoibarkoizarra.com

Argitaratzailea:



ELGOIBARKO IZARRA
KULTUR ELIZARRIA

KAZETARIAK Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Oier Narbaiza **PUBLIZITATEA** Eider Iriondo **MAKETATZAILEA** Jaione Unanue, Zalao Arnaiz **KOLABORATZAILEAK** Antton Alberdi, Uxue Alberdi, Oihana Apellaniz, Eguzkiñe Aranberri, Jon Eugi, Ion Garate, Aitzol Gamendia, Juanito Gorostiza, Amaia Gorrotxategi, Sare Gurrutxaga, Imanol Larrañaga, Ainhoa Lendinez, Jesus Mari Makazaga, Ainhoa Mendibil, Ane Odria, Maialen Olazabal, Jasone Osoro, Iñigo Otaño, Alain Ulazia, Maite Uriarte, Unai Villena, Aitz Vives **INPRIMATEGIA** Gertu **TIRADA** 4.650 ale **LEGE GORDAILUA** SS-1038/92 **ISSN** 1139-1855



KEXAK

• **Ikastolako aldapan kotxeak gaizki aparkatuta egoten dira:** "Umeak eskolatik ateratzerako orduan kotxeak kalearen bi aldeetan egoten dira aparkatuta Ikastolako aldapan. Espaloi gainean lagatzen dute autoa eta ez dago bertatik pasatzerik. Erosketak egiteko karroarekin edo umearen aulkiarekin pasatzea ezinezkoa da. Espaloitik jaitsi eta bidetik joan behar izaten dugu oinezkoek. Aurreko batean erori egin nintzen eta ez naiz bakarra. Zerbait egin beharra dago, udaltzainak sarriago joan beharko lirateke ingurune honetara. Bestela, Urasandin egin duten moduan, espaloi gainean piboteak jarri beharko dituzte jendeak aparkatu ez dezan".



• **Papera eta kartoia kontenedore kanpoan lagatzen du jendeak Pedro Migel Urruzuno kalean:** "Lurrazpiko zabor kontenedoreak jarri zituztenetik, Pedro Migel Urruzuno kalea zikinkeriz beteta egoten da. Zabor kontenedoreak aho txikia dauka eta kartoi handiak ez dira kabitzen. Jendeak dena lurrean lagatzeko ohitura hartu du, kontenedorearen inguruan. Honen aurrean neurriak hartu behar direla iruditzen zait".

• **Basarte auzoan ez dute belarra moztzen:** "Herriko berdeguneak txukuntzen ibiltzen diren langileak oso gutxitan etortzen dira Basartera. Gure auzoko berdeguneetako belarra oso gutxitan moztzen dute eta moztzen dutenean, gainera, zelaian bertan lagatzen dute usteltzen. Modu honetan, azpitik datorren belarra ez da ondo hazten. Baina Basartetik Kiroldegira bitartean egin dituzten etxe berrien inguruan, hazi baino lehen moztzen dute belarra eta dena txukun-txukun lagatzen dute. Zergatik honelako diferentziak hain gertu dauden auzoen artean? Duela zenbait hilabete Basarteko parkeko zakarrontziak puskatu egin ziren eta oraindik ez dituzte berriak jarri".

• **King-Kong azpiko lurra oso labaina da:** "Ezin al daiteke ezer egin King-Kong azpiko lurrean? Oso labaina da eta beldurrez ibiltzen gara. Jubilatuen Egoitza eta Eguneko Zentroa bertan daudenez, jende nagusi asko ibiltzen da ingurune honetan eta oso arriskutsua da. Zerbait egin beharra dago".

Atal honetarako kexak, txaloak edo galderak helarazteko:

E-posta: barren@elgoibarkoizarra.com

Nafarroa enparantza, 2

20870 ELGOIBAR

☎ 943 74 41 12



Elgoibarko
Udala



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza





URRUZUNIOREN *Luma*

Enkarterri

Elgoibartik 70 bat kilometrora dago Enkarterri, Bizkaian. Uztailean izan nintzen han lehenengoz. Bilbo atzean utzita, behelainoak hartutako bailara lanbrotsura egin nuen. "Ni ez naiz hemengo" pentsatu nuen. Hango herritar gehienak gaztelaniaz bizi dira. Eta ni, nire etxeko euskarari mintzatzen. 9 udalez osaturiko bailara erdalduna da Enkarterri. Haur askok ez dakite zer izen duen Euskararen Nafarroako Jaiak. Beste batzuek Iparraldeak Euskal Herria denik ere ez dute uste. Arabako lautada ondoz ondo duten arren, hango mahastien usainik ez dute sumatzen Enkarterrin. Bilboko lantegien keak estali ditu Enkarterriko euskaldunak. Bi hilabetez hara eta hona ibili naiz egunero. Bilbo igarotzean amasari eusten nion hasieran, eta Maltzagara iristean askatu. Baina gero eta ederragoa iruditzen zait Enkarterri. Hango mendi garaiak, hango sakonuneak. Eskualde interesgarria da Enkarterri. Altxorrik ederrena falta du ordea; euskara, alegia. Baina beti dago aurrera egiteko bideren bat. Euskara biziko da euskal giroan, baina herren dabil erdal giroetan, eta han behar du laguntza.

Ainhoa Lendinez

[ZORTZIKO TXIKIAN]



NICOLAS MOLINA

HERRIKO ANTZOKIKO
PROIEKTATZAILEA

• **Zertan datza zure lana?**
Aurretik filma errebisatu behar da eta montatu. Irudia eta soinua ajustatu behar dira.

• **Zenbat urte proiektatzaile lanetan?**

Guztira, 27 bat. Odeonen hamairu egin nituen. Eta gero Antzokian hasi nintzen. Kaleko proiektioetan ere izaten naiz.

• **Gauzak asko aldatu dira?**

Lehen proiektoreko lanparak ikatzak zeuzkan eta zaintzen egon behar genuen, ez itzaltzeko. Horien ordean 3.500 wattioko lanparak daude orain. Gainera, film guztia bobina bakanrean sar daiteke gaur egun eta ez da etenik egiten.

• **Lana asko erraztu da orain?**

Baina kabinan egon behar duzu, badaezpada. Gain-gainean egon behar duzu uneoro.

• **Bitxikeriarik?**

Odeonera gaizki muntatutako filma etorri zen eta eskenen ordena aldatuta zegoen.

• **Proiektatzaileak zer hartu behar du kontuan?**

Niretzako balitz bezala prestatzen dut proiektzioa.

• **Nola entzun eta ikusten da filma kabina barrutik?**

Gaizki. Barruko soinua ez da hain ona.

• **Filma asko ikusiko zenituen honez gero...**

Baina gozatzeko etxean DVDz lasai ikustea nahi izaten dut.

Egunero-egunero, bi



[AKORDATZEN NAIZ]



ITZIAR AJURIA

1924an jaioa

«Elizia»

[GURE BERBAK]

Morfologia (3): Norekin

Soziatiboa ere esaten jako kasu-marka honi. Elgoibarren -KIN forma bakarrik erabiltzen da gaur egun, eta ez da erabiltzen oso getru (Eibarren) ezagutzen duten -GAZ forma.

Beste kontu bat ere aittatu nahi nuke: kasu instrumentala (zutaz hitz egin) ez da erabiltzen Elgoibarren, ez baldin bada behintzat fosildutako forma egin bat (nekez, oinez, ahuspez...); euskara batuan ezagutzen dogu erabillera arruntian, edozein izenekin trabilleta, baiña Elgoibarren (eta mendebalde osuan), ez. Horren ordezkuetako bat NOREKIN kasua dugu, adibidietan ikusiko dogun bezela:

Ni akordatzen naiz ogixakin. Harek ez dakitt zerekin eginda soasen.

Eibarko neska harekin enamorau zan gure Inazio.

Konparaziuak egiteko ere erabiltzen da:

Lehenengo euskeria dagok oinguakin zihero diperentia.

Jesus Mari Makazaga

Elizara eta mezetara jütia sagraua zan. Gure amakin ez zagan besterik. Ni mojetara eruan ni duan eta anaixa, gaizto samarra zalata, Marianistengana, oiñ San Viator dana. Harek ume danak ilaran eruatzen zittuen domeketan elizara, 10:00etarako. Pagau egin bihar zan eskola haura, baiña haraxe eruan zaban gure amak anaixa. Eliziakin sekulako sinismena zakan gure amak, haundixa. Lehen dana pekatua zan, eliziak agintzen zaban. Punta batetik bestera pasatu gera, lehen dana pekatua eta oiñ dana libre, gauza guztietan aldatu da. Guk ezin genduan ezer egin, edozer egitten bagenduan infemura juango giñala esaten ziuén. Adelanto haundixa egin dogu.





MEKANOSA
Errosario, 30
Tel: 943 74 02 84 Elgoibar

- ★ IDAZMAKINEN SALMENTA ETA KONPONKETA
- ★ MULTIKOPISTAK
- ★ FOTOKOPIADORAK
- ★ PLANOEN BIRREGILEAK
- ★ ERLOJU INDUSTRIALAK
- ★ MARRAZKETA MATERIALA
- ★ INFORMATIKA
- ★ FAX



INTURAK
PEDRO PEREZ BERISTAIN
Xixilion, 2 - 3.sotoa ☎ 943 74 36 52 - 74 27 89
KOMUNITATEAK ETA FATXADAK - BERRIZTATZEAK - PINTAKETA

ELENA

ileapaindegia

Depilazio Elektrikoa

San Frantzisko 49-1 Tel: 943 74 11 89



Mandiola Egurrak S.L.
Domingo Arrizabalaga

SALEROSKETA
BASOEN MOZKETA



Juan Mugerza, 3 ☎ 943 74 12 56 - (mobila) 609 53 23 83

ERLAUNTZEN DESAGERTZEA ARGITUTA

ERLEEN MUNDU BITXIAN BARRENA

Azken urteotan erleak desagertarazi dituen gaixotasun misterioitsua aurkitu berri dela-eta, Jesus Gerenabarrena eta Alberto Egurengana jo dugu mundu ezezagun hori gerturatzeko. Iraila izanik, ezta erlauntzetatik ateratzen harrapatu ditugu. Gaixotasunaren aurkikuntzaren eta erleen mundu bitxiaren inguruko azalpenak eman badizkigute ere, erleen garrantzia nabarmendu nahi izan dute. Horrexegatik ez diegu beldurrik izan behar, errespetua baino.

Europako hainbat lekutan erleak desagertu egin dira azken urteotan. Misterioaren arazoia klima aldaketan, telefono mugikorak edo pestizidak izan zitezkeen, baina *Nosema ceranae* izeneko onddoak sortutako gaixotasuna dela jakin dugu oraintsu.

Jesus Gerenabarrenak eta Aberto Eguren ilobak San Lorenzo eta Maltzaga inguruan dituzte erlauntzak. Inoiz gosez edo hotzez hil izan zaie erleren bat, neguan batez ere. "Han geratzen zen bola". Baina orain dela bi urte erlauntza arrastorik laga gabe desagertu egiten zela ikusi zuten. "Eztia zeukan kaxak eta ez zen azaltzen ezei", azaldu du Jesus.

Antzerako gertaerak Europa osoan eta Estatu Batuetan ezagunak egin dira. Neguan erleen %10 hiltzea normala da. 2000-01eko neguan, esate baterako, erleen %90 hil zitzaizkien erlezain batzuei.

Gaitz berriaren kontra antibiotikoa erabil daiteke. Lan handia du, erleei beste tratamendu batzuk egiten zaizkiela kontuan hartuta.

Aurkikuntzak lasaitua eman die Jesus eta Albertori. Azken batean, zortzi-hamar erlauntza izan ohi dituzte eta eztingintzan zaletasunez dihardute. Profesionalei nola eragiten dien aurrerago ikusiko da.

Beharbada gaitz horren ondorioz, ez zen erlauntzariik agertzen ez kalean, ez etxeetan ez zuhaitzetan azken urteetan. "Aurten behintzat azaldu dira", eta batzuk erretiratu dituzte. "Ematen du errekupeazio bidean gaudela".

Barroasia, beste gaitz bat

Aurkitu berri duten *Nosema ceranae* gaitza ez da erleei eragiten dien bakarra. Barroasia orain dela urte batzuk iritsi zen Euskal Herrira eta geroztik erlauntza guztiak urtero tratatu behar izaten dituzte.

"Barroasia arkakusoaren modukoa da. Erleen arraultzaren barruan sartu eta jan egiten du. Irutzen den erlea ankarik gabe edo hegorik gabe jaiotzen da gero". Barro-

«Eztigile asko maskararik gabe doaz lanera»



Euskaldunok eta erleak

"Euskaldunok betidanik oso begiramen eta errespetu handia eduki izan diegu erleei. Erleak sakratuak izan dira euskaldunontzat eta hala tratatu izan ditugu. Siniste asko dago erleekiko, baina beti begirunekoak. Berriekin mintzatzerakoan "zuka" egiten zaie errespetua adierazteko, horrelako forma edo antzekoa erabiliz: "ainddire ederra".

Erlazainak erleari goxo-goxo hitz egiten dio. Horrela ez du zastakorik hartuko.

Gainerako abereekin ez bezala, erleetan taldea da garrantzizkoa eta ba-

nakotzat hartzen da; "erlea" izandaten zaio erle multzoari.

Erlea "akabatu" baino "hil" egiten dela esaten da, pertsonekin esaten den bezelaxe.

Erleei buruzko ezagutzaren jabea-ri erle-maixua deritzo. Erledunak asko badira ere bailara bakoitzean beti egoten da erle-maixu bat erledunei irizkiak eta aholkuak ematen dizkiena.

Erleren bat sukaldeko kristalera hurbiltzen bada zorionaren edo zoritxararen seinalea izan daiteke".

Xamarren "Orhipean" liburutik hartua.



asia ugaltzen denean erlauntza osoa ahuldu eta hil egiten da. Hori dela eta, urtero, sasoi honetan, barroasiaren kontrako tratamendua ezartzen dute erlauntzetan.

Erleen onurak

Erleak desagertuz gero, gizateria bera desagertu egingo zela esan zuen Einsteinek. Azken batean, erleek funtzio garrantzitsua dute: polinizazioa. "Erleek edo haizeak egin dezakete hori eta erleek ehuneko handian egiten dute", azaldu du Jesussek. Polinizazio-

rik ezean, fruiturik eta janaririk ez litzateke egongo, "hortik etorriko litzateke galera". Horrekin, produktu ugari ematen dizkigute: ez-tia, propoleoa, jalea, polena... Azken urteotan, gainera, erleen ziztaden bidez osatzeko terapiak gero eta ezagunagoak dira.

Erleena mundu erabat ezezaguna da gehienontzat. "Jendeak beldurra die erleei eta ez genieke izan behar. Justu alderantziz: maitatu edo behintzat errespetatu eta lagundu, izugarrizko lana egiten dutelako".

Erlea hurbiltzean, onena lasai egotea

da eta ez eskuak zakarki mugitzea. Eraso bakarrik defenditzearren egiten dutela utes du Jesussek. "Frogatuta dago, gainera jende asko joaten da maskararik gabe lanera". Soinean erroparik gabe erleekin lan egiten duenik ere ezagutzen du.

Jesussek aholku bat eman nahi du: erlauntzaren bat topatuz gero, Udalera deitzeko edo erretiratuko lituzkeen norbaiti abisatzeko, baina insektizidarik ez erabiltzeko. "Bestela erregina hiltzen bada, erle hori galduta dago".

[PROTAGONISTA]



Uxue**Alberdi**

Estreinaldi ezin hobea egin zuen Uxue Alberdik Gipuzkoako Bertsolari Txapelketan. Hemaniko sailkapen faseko saioan, sei parte hartzaileen artean puntu gehien lortu zituen (289,5), poto bat egin arren. Orain arte egin diren sailkapen faseko lau saioetako puntuaziorik altuena da berea. Final laurdenetarako, Irunerako, zuzeneko txartela lortu du, urriaren 21erako; elgoibartarrari babesa emateko autobusa jarriko dute (izen ematea Txuri-Beltzen). Hemanin 250etik gora bertsozale bildu ziren. Giro ezin hobea, kanpoan zein antzokian, eta paretetan elgoibartarraren aldeko pankartak ere ikus zitezkeen.

[NOTIZIA]

Urriaren 4an inauguratuko dituzte ludoteka eta gaztelekua

Haur eta nerabeentzako zerbitzu berriak jarriko ditu martxan Udalak, Elgoibarko Izarra Kultur Elkartearen laguntzarekin. Horrela, datorren egunean, urriaren 4an, arratsaldeko 19:00etan inauguratuko dituzte ludoteka eta gaztelekua.

Helburuak

Heldutasunerako bidean, haur, nerabe eta gazteei erraztasunak jartzea da gazteria politikaren helburua. Bost eta hamabi urte bitarteko haurrentzako izango da ludoteka. Jolasen bidez haurraren nortasuna garatzea izango da bertako heziizaileen lana. Urriaren 8an irekiko da.

Gaztelekuarekin, bestalde, aisiaren espa-



rruan nerabeei beste aukera batzuk eskaintzea da asmoa. Nerabeen informazio beharrak ezagutu eta asetzeko estrategiak jarriko dituzte martxan, gazteen jarrera aktiboa sustatuz. Gaztelekua urriaren 6an irekiko da.

[ZENBAKIA]

500

Jantzien neurriak bateratzeko helburuarekin, Espainiako Kontsumo Institutuak 12 eta 70 urte bitarteko emakumeak neurtuko ditu. EAEn 500 emakume neurtuko dituzte, Gasteizen, Bilbon, Erandion eta Elgoibarren. Modako industriak arropa neurriak homogeneizatzea da ikerketa horren asmoa.

asteko [ARGAZKIA]



Ermuaranbide kaleko bizilagunek bazkaria egin zuten joan zen zapatuan. 150 lagun bildu ziren: egun kale honetan bertan bizi direnak, herriko beste ingurune batzuetakoak eta Elgoibartik kanpora joandakoak ere etorri ziren. Diapositiba emanaldiarekin eman zioten egunari hasiera. Erretratu zaharren emanaldia izan zen eta oroitzapen politikak ekarri zituzten gogora. Sigma jatekxan egin zuten bazkaria. Antolatzaileek eskerrak eman nahi dizkiete bertaratu ziren guztiei, Txaridunako arduradunei, Gelatxo orkestrari eta Sigmako langileei.

Etxebizitza arazoa murrizteko mozioa aurkeztu dute PSE-EEK eta EB-Aralarrek



Etxebizitza duina lortzeko dauden arazoak direla eta, PSE-EEK eta EB-Aralarrek mozioa aurkeztu dute udal txetan. Euren esanetan, administrazio publikoek lurzorua merkaturatu esku hartu behar dute etxebizitza eskubidea gauzatu ahal izateko. Horrela, Euskadiko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 legeko 114. artikulua arabera, urtero-urtero udal aurrekontuen diru sarreretatik I. eta II. atalen batuketaren %10 gutxienez lurzoru ondarerako lurra erosteko erabili behar dira. Honekin, etxebizitza publiko gehiago egin ahal izango lirake.

Merkadilloa

Etxebizitza gaiarekin batera, merkadilloari buruzko beste mozio bat aurkeztu dute PSE-EEK eta EB-Aralar koalizioak. Bertan, ostegunetako azoka herriko erdigunera ekartzeko eskatzen diote EAJ eta EAren Gobernu taldeari, euren ustez, azokak bizia ematen baitio herriko merkataritza. Gainera, azoka txikiko merkatarien, gobernu taldearen eta alderdi politiko guztien negoziaketa mahaia sortzea proposatu dute, guztien artean azoka garbiagoa, modernoagoa eta hobea izan dadin.

[MOTZ-MOTZIAN]

Euskara hutsezko informazio aplikazioetarako laguntzak

Elgoibarko Udaleko Euskara Batzordeak diru-laguntzak emango dizkie euren gestiorako euskara hutsezko aplikazio informatikoak erosten dituzten elkartei, dendei, tabernei eta jatetxei. Diru-laguntzak ez du aplikazioaren kostuaren %50 gaindituko; eta gehienez ere, 600 euroko diru-laguntza emango da. Diru-laguntza eskaerak Elgoibarko Udaleko Euskara Sailean (Nafarroa plaza 3, 1. ezk.) aurkeztu beharko dira. Informazio gehiago 943744366 telefonoan.

Ehun euroko sei sari banatu ditu Txankak

Txanakaren VII. azoka izan zen zapatuan eta 600 euro banatu zituzten erosketari txeketan. Saria Elkarte dendetan gastatu beharko dute.



San Antolin jaietako zozketa

San Antolin auzoko jaietan zozketatu zuten karretilak badauka jabea: Rikaro Urrutia izan da sariduna. Argazkian bere arreba agertzen da karretila jasotzera joan zen momentuan.



“Elgoibar1936: gogoratuz” elkartearen sortzeko deialdia

Elgoibarren altxamendu faxistak izan zuen eragina gogoratu nahi du sortzearen dagoen “Elgoibar1936: gogoratuz” elkarteak. Azken finean, errekonozimendua eskatzen dute. Antolatzaileek lanerako hiru alor markatu dituzte:

1. Ehorzketak: hilobien kokapena eta hildakoak bertatik ateratzea, gorpuak identifikatuz.

2. Artxibategia: Udaleko aktak, Bergara, Oñati, Salamanca, Madril... Historia berreraikitzea: nondik sartu ziren, zenbat denbora egon ziren, Frontearen bilakae-

ra. Non izan ziren borrokarik, trintxerak...

3. Herritarren esanak: elkarrizketak eta galdeketa egin garai hura nola bizi izan zuten ezagutzeko.

Elkarte berri honen sustatzaileek gai horretan interesatuta dauden herritarrei dei egin nahi diete, eurekin harremanetan jartzeko; bai informazioa emateko, eta bai elkartearen parte hartu eta elkarrekin lan egiteko.

Telefonoak: 605772285 (Hodei) eta 690670021 (Iñaki).

E-posta: elgoibar1936@euskalerria.org

Inkesta

Bostehun emakume neurtuko dituzte EAEn jantzien neurriak bateratzeko.

Zure neurriko jantziak bilatzeko arazorik izaten al duzu?

M^a TERESA JIMENEZ
Burdindegiko langilea
34 urte



“Bai, beti egon naiz lodi eta arazoak izaten ditut eropak erosterakoan. Oso ondo iruditzen zait benetako emakumeen neurriak hartzea, beharrezkoa da.”

ANTONIA VARGAS
Ume zaintzailea
54 urte



“Bai, badirudi egungo neskek bi metrokoak direla! niri jantzi guztiak luze geratzen zaizkit. Nik ere jaso dut esku-titza eta joango naiz neurriak hartzera.”

ENCARNI MIGALES
Etxekoandrea
39 urte



“Bai. Ez dira lehengo neurriak, orain askoz txikiagoak dira jantziak. Kamisetetan igartzen dut batez ere, tailarik handiena hartu arren, oso txikiak dira leku askotan.”

ANGELA JESUS
Langabetua
23 urte



“Bai, zenbait dendatan izaten ditut nire neurriko jantziak bilatzeko arazoak. Kamisetak oso estuak dira gaur egun. Ondo ikusten dut neurriak bateratzea.”

[BAI ala EZ?]

Alokairurako laguntzak eman beharko lituzke Jaurlaritzak?

BAI %88

“Bai. Gazte askok ezin dute etxebizitzarik erosi eta irtenbide bakarra alokairua da. Nire ustez, alokairua gehiago bultzatu beharko litzateke.”

EZ %12

“Ez. Euskal Herriko gazteek ez dute nahi alokairuan bizi, etxeak erosteko laguntzak eman beharko lituzke, edo bestela, etxebizitzaren prezioak jaitsi.”

Datorren asterako... Perretxikoak biltzeagatik 10 euro ordaindu behar dira Ulzaman.

Ondo iruditzen al zaizu perretxikoak biltzeagatik dirua kobratzea?

Bidali SMS bat:

BARREN (espazioa) ERANTZUNA

7505 zenbakira

SMS kostua: 0'90 euro + B.E.Z.-a.



Hilean behin afari bat zozketatuko dugu **Gabi jatetxean**. Zenbat eta erantzun gehiago, aukera gehiago!

[GOMENDIOA]



Idoia Martikorena

SANATANA DHARMA ELKARTEKO
irakaslea

Yoga

Zer da yoga? Yogari buruz hitz egitea gizakiaz hitz egitea da. Yogak azaletik barruraino ezagutzen laguntzen gaitu eta bizitzako erronkei aurre egiteko teknikak eskaintzen dizkigu. Gure gorputz fisikoa ezagutzen hasiko gara, bertan ikusten da garen guztia eta hortik gerturatuko gara gure benetako niarengana.

Asanak

Gure gorputzaren aukerak eta mugak sakontasunean ezagutzeko balio duten posturak dira Asanak.

Pranayama

Gure amasketaren jabe egitean datza. Ez bakarrik airea menperatzean, baizik

eta fisikoa, emozioak eta burua orekatzen dituen energia kontrolatzea da.

Erlaxazioa

Gure muskulu eta artikulazioetako tentsioa erlaxatzeaz gain, gure pertsonalitatea bateratzen du, bizitza lasaiago eta humanoagoa ahalbidetuz.

Meditazioa

Norberaren ezagutzan garrantzitsua da meditazioa. Meditazioa ez da pentsatzea edo erreflexionatzea; isilik gertatzea da, bakean, zurekin bakardadean, benetan zaren horretan bihurtzea da. Zurekin lortzen duzun egoera bateratu horri deitzen zaio yoga.



[OSASUN GIDA]



MEDIKUNTZA ALTERNATIBOAK

Kemen Belardenda

("Dieta erraza" Mehetzeko tratamendua... Medikuntza naturala, Bach loreak, masaia, makrobiotika, janari biologikoak, nutrizio eta osasun ikastaldiak.)

San Bartolome, 25 • Tel: 943 74 40 31

Egunero: 9:00-13:00 / 16:30-20:00

Sanatana Dharma Yoga Elkartea

Urasandi, 9 • Tel: 943 74 85 93 (Idoia) / 685 722 131

Astearte eta ostegunetan:

10-11:30/13:00-14:00/15-16:30/18-19:30/20-21:30

Mendaro

Astelehen eta asteazkenetan: 10-11:30/15-16:30

Astearte eta ostegunetan: 20:00-21:30

OPTIKAK

Ikus Optiko-optometrista

San Bartolome, 10 • Tel: 943 74 37 34

Egunero: 9:30-13:00 / 16:30-20:00

Uzuri

(Optometria, tonometria, kontaktologia, audiometria)

San Frantzisko, 21 • Tel: 943 74 03 59

Egunero: 9:30-13:00 / 16:30-20:00

HORTZ KLINIKAK

Irale

Errosario Kalea, 7 behea (Elgoibar) Tel: 943 74 36 79

Zeharkalea, 8 behea (Ermua) Tel: 943 17 71 34

e-posta: irale@irale.com - weba: www.irale.com

FISIOTERAPIA

Ainhoa Fisioterapia

Eragozpen fisikoa egongo balitz etxez etxeko zerbitzua eskeintzen da.

Tel. 943 53 19 53 / 669 565 745 (Goiz eta arratsaldez)

Jausoro, 6 behea

Amalurra Fisioterapia

Ordubeteko tratamendu manualak. Goiz eta arratsaldez.

San Frantzisko, 58 behea (Maalan) • Tel.: 943 53 14 63

Olatz Fisioterapia

(Minarentzako tratamendua, erredukazio posturala, prebentzioa, erlaxazioa, masaia, reiki)

San Roke, 1 - Tel. 696 821 149

Egunero: 9:00-13:30 / 15:00-20:00

ORTOPEDIKAK

Itziar Sarasketa

San Frantzisko, 12 • Tel: 943 74 35 62

Egunero: 9:30-13:00 / 17:00-20:00

PODOLOGOAK

Oinberri

Errosario kalea, 25 • Tel: 943 74 17 95

Astelehenetik ostiralera: 9:00-13:30 / 15:00-19:30

Gidan agertu nahi baduzu, deitu 943 74 37 04ra



IRAKASLEARI azterketa

LHko irakaslea

FELIX UNAMUNO



- 1 **Zergatik irakasle?**
Batxilergoa bukatu ondoren Magisteritza ikasi nahi nuen eta horrela sartu nintzen irakaskuntzan.
- 2 **Ikasle garaian jarri dizuten zigorrik txarrena?**
Ikasle formala nintzen, ez ninduten zigortzen. Historiako ikasgai batzuk behin eta berriz kopiatu behar izan nituen noizbait, besterik ez.
- 3 **Eta zuk, zigortzen al dituzu ikasleak?**
Ez. Batzutan errieta egiten diet, baina zigorrik ez.
- 4 **Ikasleen galdera guztiak erantzuteko gai al zara?**
Txikiekin bai eta bestela gezurtxoren bat kontatzen diet eta kitto! Nagusien galdera batzuk ezin izaten dira momentuan erantzun.
- 5 **Zer behar du irakasle on batek?**
Pazientzia, batez ere, eta ikasgaia ondo ezagutzea inportantea da.
- 6 **Gustura joaten al dira ikasleak zure klasera?**
Ikasgaiaren eta egunaren arabera gusturago etortzen dira.
- 7 **Jarri al duzu inoiz suspentsorik?**
Bai. Ikaslearentzat hobe izaten da askotan, baina zaila da ulertzea.
- 8 **Irakasle ez bazina?**
Edozein lanbidetan moldatuko nintzateke ondo.

NOLAKO ENBORRA... halako ezpala



MAITE ARANGUENA *ama*



AROA ETXEBERRIA *alaba*

GALDERAK

- | | | |
|--|--|--|
| 1. Oporren osteko depresiorik izan duzu? | 1. Ez, poliki-poliki hastea da trukoa. | 1. Ez, ikastolara joatea gustatzen zait. |
| 2. Hondartza ala igerilekuak? | 2. Hondartza, lasaiagoa dela uste dut. | 2. Igerilekua, gasik ez daukalako. |
| 3. Elgoibarko txokorik politena? | 3. Plaza Handia eta baserri auzoak. | 3. Plaza Txikia, jolasteko leku ona da. |
| 4. Telebistako saiorik gustukoena? | 4. Gutxi ikusten dut, pelikulak. | 4. Marrazki bizidunak. |
| 5. Realala Athletic? | 5. Etxean denok gara Athletic zaleak. | 5. Lehen Realala, baina orain Athletic. |
| 6. Zerk ematen dizu beldurra? | 6. Alabei gertatuko zaiena ez jakiteak. | 6. Iluntasunak. |
| 7. Egin duzun azken ametsa? | 7. Ametsgaizto bat izan zen, hobe ahaztea. | 7. Ez naiz ametsekin gogoratzen. |
| 8. Nori kontatzen dizkiozu sekretuak? | 8. Sekretuak gordetzeko dira. | 8. Ez ditut sekretuak kontatzen. |

TXIKI inkesta

Zergatik egiten du euria?

Eider Rodriguez
10 urte

Beroarekin itsasoko ura lurrundu eta hodeietan pilatzen da. Hori hozten denean euria egiten du.



Jessica Plasencia
11 urte

Atmosfera garbitzeko egiten du euria. Euririk gabe ezingo ginatke bizi, landare eta animaliak hil egingo liriateke.



Laura Larrañaga
10 urte

Hodeietan itsasoko ura pilatzen da eta hotz egiten duenean euria egiten du. Nik nahiago dut udako eguraldia.



Nerea Babarro
10 urte

Udan beroak ibaietako ura lurruntzen du hodeiak sortuz. Neguan hotz egiten du eta ez dakit nola sortzen diren euri-hodeiak.



LEHIAKETA

Zer dago faltan, soberan edo aldatuta?



Erantzuna:

Izen abizenak:

Telefonoa:

SARIA

Elhuyar-ek eskainitako

"KAO: SUMENDIKO SEKRETUA" BIDEOJOKOA
CD-ROMa



AURREKOA:



Ez dago irabazlerik

14 urtetik beherakoei zuzendutako lehiaketa.


Erantzunak BARREnera ekarri edo posta elektronikoz bidali:

barren@elgoibarkoizarra.com



GAZTIA NAIZ

txApeLa bURuAN...



Eluska Escudero

Granadan, hiriburuan, bizi da Eluska Escudero (24 urte). 1997an joan zen bertako herri batera (Illora) bizi izatera. 14 urte zituen eta gurasoen lana zela eta joan behar izan zuen. "Gurasoen erabakia onartu eta beste puntara etortzea beste aukerarik ez nuen izan", esan digu. Gurasoek Illoran jarraitzen dute lanean, baina bera Granadan bizi da egun. Hiria nolakoa den galdetuta zera esan digu: "Erakarpen indar berezia duen hiria da. Txikia bada ere jendez betea dago; arraza, erlijio eta estilo askotako jendea dago". Granadan gustukoena Paseo de los Tristes delako txokoa du. Bertatik Albaicin auzora sartzen da eta alde batera Alhambra dago. Gutxi, bera gustatzen zaio. Elgoibartik Granadara alde egin zuenean bere bizimodua, familia, lagunak eta ohiturak... utzi zituen eta hasieran zaila egin zitzaion hango bizimodura moldatzea. Orain ere, "familiarren, lagun arteko elkarrizketen eta herriaren falta" sumatzen du. Gero eta gutxiago etortzen da gurera baina bisitan joanez gero ziur beso zabalik hartuko gaituela. Gida turistiko lanetan dihardu orain eta ongi ezagutzen ditu Granadako tokirik esanguratsuenak, baita txoko berezi eta ezkutua ere. Hara joanez gero, seguru egonaldi polita eskainiko digula.

Nolakoa da Granadako bizimodua?

Horkoarekin alderatuta nahiko ezberdina. Ohitu naiz, baina iritsi nintzenean gauza asko arraroak iruditzen zitzaizkidan. Esaterako, jendea oso berandu oheratzen da. Janaria prestatzeko modua ere ezberdina da; nik zortea dut amak Euskal Herriko jatekoak prestatzen dizkit eta.

Granada kontraste handiko probintzia da.

Neguan hiri hotza da, izotza egiten du askotan. Sierra Nevada hiritik 37 kilometrora dago eta horrek badu eragina tenperaturan. Askok Granadara etorrita sustoa hartu izan du uste duela ez duela hotzik egiten. Udan, berriz, oso beroa, gehienetan 35 gradutik gora izaten dira.

Zer moduz moldatzen zara andaluziarrekin?

Toki askotako jendea dago Granadan, baina beharbada okerren andaluziarrekin moldatu naiz. Ohituta nengoen industriatik bizi zen herri aurreratu bateko bizimodura eta Illora nekazaritzatik bizi den herria da, oso ezberdina eta herri modura garapen motelagoa izan duena. Baina hain gaizki konpontzen naizenik ere ezin dut esan, lagun asko ditut eta mutil laguna hemengo da.

Zertan diharduzu orain lanean?

Gidari turistiko lanetan ari naiz touroperadore batentzat. Espainian zein nazioartean egiten ditugu bidaiak eta horretarako ezagutu egin behar ditut, bai etxetik eta baita bertatik bertara ere. Azken bidaiak Valentziara egin ditut.

Bisitan joanez gero, zer erakutsiko zeniguke?

Gidari turistikoa naizen aldetik Granada bere osotasunean erakutsiko nizuke; hiriaren errealtatea; alde onak zein txarrak. Alhambra; erdigunea; katedrala; Errege katolikoak ehortzita dauden Kapera erreala; Albaicin auzoa non Granadako etxe zuri tipikoak dauden; San Nicolas behatokia; Sacromonte ijito auzoa, kobazulo etxeak eta tablao flamenkoak daudena; Paseo de los Tristes nire ustez hiriko tokirik politenetakoa, ipuinetakoa dirudi eta teterietan Marokon bezala sentitzen da bat; Alcaiceria, antzinako auzo judutarra, dendaz betetako kale estuekin. Horretaz gain, ikasle giroa ere erakutsiko nizuke astelehenetik astelehenera arteko parranda; eta noski, edariarekin doan ematen dituzten tapak.

BARREN

jakiteko...

"GOMENDATZEN DIZUT" LEHIAKETA



Elgoibarko Udaleko Gazte Informazio Guneak antolatzen duen "Gomendatzen dizut" lehiaketarako lanak aurkezteko epea irailaren 30ean bukatuko da. Lehiaketaren oinarria bisita eta bidaien inguruko ahalik eta informazio gehien bilzteza da, esaterako alojamentuen kostua edo ibilaldi interesgarriak; gainontzeko bisitarien erabilgarria izan daitekeen informazioa, alegia. Lanak Elgoibarko Gazte Informazio Gunean (Kultur Etxeko bigarren solairuan) entregatu daitezke edo posta elektronikoz bidali gib@elgoibar.org helbidera. Interesa duten 12 eta 34 urte arteko guztiek parte hartu dezakete lehiaketan eta baikoitzak nahi beste gomendio bidali daitezke.

ZINEMA ETA BIDEO LEHIAKETA

Irungo Udalak Gazteen XII. zinema eta bideo lehiaketa antolatu du. Parte hartzaileek 2005eko uztailearen 1etik aurrera ekoiztutako lanak aurkeztu beharko dituzte. Errealizadore bakoitzak gehienez bi lan aurkeztu ahal izango ditu. Edozein hizkuntzatan

aurkeztutako fikziozko film laburrak soilik onartuko dira lehiaketan. Lanak aurkezteko epea azaroaren 5ean bukatuko da. Informazio gehiago Irungo Udalean jaso daitezke: 943649239 telefonoan edo jvesga.cultura@irun.org helbidean.

GIPUZKOAKO BERTSOLARI TXAPELKETA



Joan zen astean hasi zen Gipuzkoako Bertsolari txapelketak asteburu honetan izango du jarraipena. Bigarren kanporaketak lau saio izango ditu: Lehenengoa irailaren 29an jakatuko da Usurbilgo Sutagi aretoan 18:00etan, bigarren saioa egun berean eta ordu berean izango da Zumarragako Zelai Artisti aretoan. Dimekan bestalde, Hondarribian eta Arrasaten izango dira bertso-saioak arratsaldeko 17:00etan.



gazte
informazioa

BEKAK EZGAITUAK

Eusko Jaurlaritza. 2007-2008 ikasturteko garraio gastuak ordaintzeko laguntzarakasle ezgaituentzat. Epea: urriak 17

AZTERGAI

Itsasondoko Udala. Arrobien ustiaketa-
ren ikerketa bat egiteko bekak, herriaren
garapenean izan duen garrantzia aztertze-
ko. Epea: urriak 17

EKINTZAK LEZO MOUNTAIN BIKE

Ibilbidea egin nahi duen edozeinek
har dezake parte Mountain bike proba
herrikoian, irailaren 30ean.

COTI KONZERTUAN

Victoria Eugenia Antzokia. Coti artistaren
pop-rock kontzertua. Urriak 10ean 20:30ean.

IKASTAROAK BARRETERAPIA

Udako Euskal Unibertsitatea. Barreterapia
ikastaroa Eibarren. Azaroaren 10ean, 17an
eta 24an (15 ordu). Epea: urriak 11

IPUINAK

Udako Euskal Unibertsitatea. Ipuinen az-
terketa metodo berri bat Websterren bildu-
ma arakatzu ikastaroa eibarren, azaroaren
15,20,22,27 eta 29an. Epea: urriak 11

DINAMIZAZIOA

Urtxintxa Astialdiko Eskola. Donostiako
Urtxintxa Eskolaren dinamizazio
soziokulturaleko ikastaroa. Urriaren 15etik
maiatzaren 19ra. Epea: irailak 28

TXALAPARTA

Groseko Auzo Elkartea. Astezken
arratsaldean, euskaraz. Epea: urriak 2

PREBENTZIOA AISIALDIAN

Urtxintxa Eskola. Aisialdiko hezitzaile-
entzat dago zuzendua. Epea: urriak 12

MENDIA

Gipuzkoako Goi Mendi eskola. Mendiko
orientazioko gps-ari buruzko ikastaroa,
urriaren 20 eta 21. Epea: Plazak bete arte.

ELGOIBARKO GAZTE INFORMAZIO GUNEA

Kultur Etxean. Bigarren solairuan.

e-posta: elg.gzerbitzua@terra.es

☎ 943 741 461



Asteartetik ostiralera
17:00-20:00

SAN MIGEL-AIASTIA AUZOKO JAIK ASTEBURUAN

Korrikako igoera izango da aurtengo festetako nobedadea

Domekan egingo den San Migeleko I. Korrikako Igoera izango da Aiaastia auzoan ospatuko dituzten San Migel jaietako nobedade nagusia. Horrez gain, gaurtik domekara bitartean izango diren jaietan, aurreko urteetako ekitaldiekin gozatzeko aukera ere izango da. Kanpai hotsak emango dio gaur 18:30ean jaiari hasiera. Gero, bizikleta gaineko txikiteoa eta gazte afaria izango dira. Goizaldean, gauerdiko disko festa amaitu eta gero, stripteaseari ekingo zaio.

Biharko eguna, berriz, ekitaldiz beteta iragarri zaigu. Bertsolariak, pilota partida, Pilar Pujana trikitilaria, Haritz eta Kezka dantza taldeak, Laketen erromeria eta bolo txapelketak izango dira, besteak beste.

Bihar ere ardi txakurren txapelketa izango da. Euskal Herriko arraza libreko final horretan bederatzi partehartzaile izango dira lehian.



Domekako I. igoera 12:30ean irtengo da, Plaza Handitik. Bost kilometro egingo dituzte korrikalariak. Izena udaltxeko arkupeetan eman ahal izango da lehenxeago

edo bestela 685772224 zenbakian. Idi demetan, berriz, Elgoibarko Soarte Erandioko Jose Agustin Bilbao eta Berriatuko Bikandirekin arituko da domekan lehian.

Zine ordutegia aurreratu dute

Herriko Antzokiko zine emanaldien ordutegia aurreratu egingo dute urriaz gerostik. Orain arte filma gehienak 19:30ean hasten izan dira eta aurrerantzean 19:00etan eskainiko dituztela iragarri du Udaleko Kultura Sailak. Orain arte, filmak bi ordu baino gehiago irauten bazuen proiektzioa 19:00etara aurreratzen zuten. Ikusleen artean sortzen zuen nahasmena saihestearren aurreratu dute ordutegia, ikusleak batzuetan goizegi eta beste batzuetan beranduegi joaten baitziren aretora.

Antzerki tailerraren jarraipena

Taupada taldeak antolatutako antzerki tailerrak jarraipena izango du urrian, azaroan eta abenduan. Tailerra eguenetan izango da. Ordutegia: 21:00etatik 23:00etara. Izena emateko eta informazio gehiago lortzeko, deitu telefono honetara: 943743655.

Urriari hasiko da berriz ere Kuadrillategi egitasmoa



Gazteentzako jolas parkea jarriko da gaur martxan Madalako parkean, 18:00etatik aurrera. Jai horrek urriari berriz hasiko den Kuadrillategi egitasmoaren berri emateko balio izango du. Gaztetxoek bertan izango dituzte izena emateko orriak.

Elgoibarko Izarrak Udalarekin elkarlanean iaz jarri zuen martxan proiektu gure herrian. Gazte koadriletan euskarren erabilera suspertu nahi dute.

Hamabitik hamalau urtera bitarteko koadrilek parte hartzen dute egitasmoan. Astean bi orduetan eskaintzen zaien aisialdiaren truke, elkarrekin euskara hitzez hitz egin beharko dute egitasmo orduetan. Bi orduetako aisialdi eskaintza finko horrez gain, ekintza bereziak ere antolatzen dira. Hala nola, ikastaroak, asteburuko itereak, tailerrak, etab. Egitasmoa urriari hasi eta ekainera bitartean burutuko da.

¿Que te aporta el EUSKERA?

Josu Merino

"Hemengo hizkuntza denez, herriko jendearekin harremanak edukitzeko aukera ematen dit. Eta harro sentitzen naiz ikasi dudanarekin, nahiz eta oraindik ez dudan gailurra lortu, baina horretan dihardut".



Isabel Segundo

"Debido a mi trabajo cara al público me permite poder tener un trato más cercano con la gente, además de entretenimiento y cultura porque puedo leer o ver cosas diferentes".



Lurdes Ramirez

"Me aporta muchas cosas. Comunicarme con mi pueblo en su idioma, conocer su cultura y cuando lo empiezas a entender una gran satisfacción personal. Aprendes el idioma con entretenimiento y sin darte cuenta."



Amagoia Agirrezabal

"Euskara jakiteak bide asko ireki dizkit, bai lan munduan, bai jendearekin erlazionatzeko eta gerora begira nire seme-alabekin euskaraz hitz egiteko". Beraz, oso pozik nago euskara jakiteagatik. Nahiz eta asko kostatu, merezi du.



SI TU TAMBIEN CREES QUE MERECE LA PENA,
TE ESPERAMOS EN:



AEK EUSKALTEGIA
Plaza txikia, 3
Tel. 943 74 13 32
elgoibar@aeknet.net



UDAL EUSKALTEGIA
Nafarroa plaza, 2
Tel. 943 74 27 31
elgoi.euskal@udal.gipuzkoa.net

Laguntzaileak:



ELGOIBARKO IZARRA Kultur Elkartea



UDALAREN
EUSKARA
BATZORDEA

GORKA GARATE ARRATEKO ESKUBALOI JOKALARIA

«Eskaintzen dizkidaten aukera guztiak aprobeixatu behar ditut»



Arrate Eskubaloi Taldeko jokalaria dugu Gorka Garate. Lehen nazional mailako fitxa dauka, baina talde nagusiko bigarren pibotea lesionatuta dagoenez, Asobal Ligan debutatu du. Bi partida jokatu ditu dagoeneko lehenengo taldean eta aste honetan ere jokatzeko aukerak ditu.

► Nolako izan zen zure debuta?

Polita. Hasieran oso urduri nengoen baina jokatzen hasi eta partiduan sartu nintzenean oso ondo joan zen dena. Maila pertsonalean izugarria izan zen, gol bat egitea ere lortu bainuen. Emaizta ez zen ona izan, galdu egin genuen, baina ni oso gustura geratu nintzen egindako lanarekin.

► Espero al zenuen Ligako lehenengo partidari debutatzea?

Matovic, I. taldeko bigarren pibotea, lesionatuta zegoen eta banekien talde nagusian sartzeko aukera nuela. Ostirale-ra arte ez dugu jakiten partidarako deialdia zein izango den eta aste guztia horren zain egon nintzen. Azkenean iritsi zen eguna eta deialdian sartu ninduen entrenatzaileak. Hala ere, horrek ez du esan nahi jokatu egingo duzunik. Partida hasi eta hamar minutura esan zidan jokatze-ko. Oso pozik jarri nintzen.

► Bartzelonaren kontra ere jokatu zenuen. Zer sentitzen da honelako talde baten aurrean jokatzean?

Sekulako esperientzia izan zen. Ordua arte telebistan ikusten nituen jokalariek aurrez-aurre nituen. Demaseko ilusioa egiten du honelako partidak jokatzeak. Gainera etxean jokatu genuen, lpurua jendez gainezka zegoen eta Elgoibartik ere jende mordoia etorri zen gu animatzerara. Emaizta kaskarra izan zen, baina niretzako kristorena izan zen.

► Matovic sendatzen denean, gogorra egingo al zaizu beheko taldera itzultzea?

Ez. Argi daukat I. nazional mailako jokalaria naizela, baina eskaintzen dizkidaten aukera guztiak aprobeixatu behar ditut. Bost urte daramatzat Arraten. Azken hiru urteetan talde nagusiarekin egin dut aurrendenboralida eta ez dut inoiz Ligan jokatzeko aukerarik izan. Aurten ezin izan dut beraiekin entrenatu, baina debutatze-ko aukera izan dut. Horrela etortzen dira aukerak eta aprobeixatu egin behar dira. Matovic-ek ez dauka denbora luzerako lesioa eta laster itzuliko da taldera.

► Nolako taldea dauka Arratek?

Denboraldia ez da ondo hasi, baina taldea ona da. Atzeritar asko daude eta denbora behar dute; batzuk hitz bat ere ez dute ulertzen gazteleraz. Hasiera gogorra izan dugu, Ligako talderik gogorrenak jarraian izan ditugu eta emaitzak ez dira onak izan. Helburu nagusia mailari eustea da. Hori lortzen denean, etorriko dira ondorengo helburuak eta ahal den goren iristen saiatuko gara.

► Iaz Tecnifuellek mailaz igo zineten eta aurten ez da talderik sortu...

Bai, pena izan da. Ez da erraza mailaz igotzea eta aukera polita zeukan Tecnifuellek. Gainera, Elgoibarren maila ona dago eskubaloian jokatze-ko. Arazoak egon dira eta azkenean ezin izan da talderik sortu.

«Elgoibarren maila oso ona dago eskubaloian jokatze-ko»

AIZKORRIKO MENDI MARATOIA

Zazpi elgoibartarrek hartu zuten parte Aizkorriko Mendi Maratoian

Zegamatik Aizkorri eta berriz Zegamara. Horixe da Aizkorriko Mendi Maratoia. Ilgandean jokatu zen proba gogor horretan zazpi elgoibartarrek hartu zuten parte eta horien artean azkarrena Jon Revert izan zen 4:59:49 denborarekin. Probaren irabazlea, Kilian Jomet kataluniarra izan zen, 3:56:59 denbora ikusgarriarekin. Garaipen honi esker, Munduko Kopa ere berak eskuratu du.



ELGOIBARTARREN SAILKAPENA:

Izena	Denbora
1. Jon Revert	4:59:49 (59)
2. Unai Narbaiza	5:05:31 (71)
3. David Conde	5:12:17 (82)
4. Xabier Bergaretxe	5:14:03 (87)
5. Asier Arrieta	5:40:39 (153)
6. Iosu Mendikute	6:24:48 (269)
7. Aitor Osoro	6:44:34 (297)

Kirol ikastaroetan euskararen erabilera areagotzeko gida atera dute Debabarreneko Udalek



Debabarrena eskualdeko Udalek, Kirola Euskaraz izeneko programaren barruan, eta Euskara Biziberritzeko Planaren irizpideei jarraituz, gida bat argitaratu dute kirol ikastaroetan euskara gehiago erabiltzeko. Gida honetan, kirol monitorteei zenbait aholku ematen zaizkie, ikasleen hizkuntza-tipologiaren arabera, euren ikastaroetan euskararen erabilera handitzeko.

[EMAITZAK]

FUTBOLA

Zalla 3 - Elgoibar 2 (Haundi)
 Elgoibar 1 - Bergara 0 (1. Reg.)
 Anaitasuna 2 - Elgoibar 1 (Nesk.)
 Elgoibar 5 - Orioko 3 (Jub.)
 Real Sociedad 3 - Elgoibar 0 (Kad.)

PILOTA GIPUZKOAKO TXAPELKETA

Aretxabaleta 22 - Lagunak 18 (2. Kad.)
 Oiarpe 22 - Lagunak 11 (3. Kad.)
 Lagunak 15 - Beloki 22 (1. jub.)
 Lagunak 15 - Añorga 22 (Nag.)
 Lagunak 22 - Zazpi Iturri 15 (Sen.)

[AGENDA]

PILOTA Ikastolan

Zapatua, 29
 10:00 Elgoibar - Eibar (aleb.)
 12:00 Elgoibar - Antiguoko (Kad.)
 17:00 Haundi - Amorebieta

FUTBOLA Mintxetan

Zapatua, 29
 10:00 Elgoibar - Eibar (aleb.)
 12:00 Elgoibar - Antiguoko (Kad.)
 17:00 Haundi - Amorebieta

Domekia, 30

10:00 Elgoibar - Mutriku (Inf.)
 12:00 Elgoibar - Ordizia (Nesk.)

ESKUBALOA Kiroldegian

Zapatua, 29
 17:00 Sanlo-Palencia-Aloña Mendi (triangularra) (nesk.)

Domekia, 30

9:30 Elgoibar - Burlada (kad. nesk.)
 11:00 Elgoibar - Burlada (jub. nesk.)
 12:30 Elgoibar - Burlada (sen. nesk.)

ARETO FUTBOLA Kiroldegian

Zapatua, 29
 11:00 Debabarrena Elgoibar - Eibar (Jub.)
 15:30 Xagua - Marea gora

MAHASTI

Jose Angel Zabala
URDAITEGIA eta ARDANDEGIA

Merkatu Plaza, 30-33-34 • Tel.: 615 76 03 72

Jaika

jaketxea

Eguneko menua: 8.50 euro
 Karta eta menu bereziak asteburuetan
 Pedro Muguruza, 27 beheko - Tel.: 943 74 10 29

[ETXEBIZITZAK]

SALMENTA

- ▶ Etxe handia salgai Plazan. Berritua. Prezio interesgarria. ☎ **619409273**
- ▶ Etxea salgai erdialdean. 3 logela, sukalde-jangela eta egongela. Komuna eta berogailua. 3. solairua. ☎ **688650060**
- ▶ Etxea salgai. 3 logela, egongela, sukaldea, jangela eta komuna. Eguzkitsua. Berritua. ☎ **680707639**
- ▶ Etxea salgai Erretxindin. 4 logela, sukalde berritua, eguzkitsua, ganbarra, balkoi handia. Fatxada eta igo-gailua berrituak. ☎ **628115677**
- ▶ Etxea salgai Santa Klaran. 3 logela, egongela, bainugela, sukalde handia, ganbara. Dena kanpora. ☎ **617689348**

ALOKAIRUA

- ▶ Pisu edo logela hartuko nuke alokairuan. ☎ **659093967**
- ▶ Etxea hartuko nuke alokairuan. ☎ **671405061/943530243**
- ▶ Etxea hartuko nuke alokairuan. ☎ **699637269**
- ▶ Etxea hartuko nuke alokairuan. ☎ **943531288**
- ▶ Etxea alokatu edo norbaitekin konpartituko nuke Elgoibarren. ☎ **686907827 (Argitze)**
- ▶ Logela alokatzen da. ☎ **943741881**
- ▶ 25 urteko neska batek pisua hartuko luke alokairuan beste pertsona euskaldun batekin konpartitzeko. ☎ **658700164**

[GARAJE eta LOKALAK]

- ▶ Marradun garajea alokatzen da herri erdian, Santa Ana 2an. ☎ **943743427**
- ▶ 200m² eta 400m²ko pabilioiak salgai Sigman. Beheko solairua. ☎ **619409273**
- ▶ Garajea alokatzen da Santa Klaran. Plazatik gertu. ☎ **669022573**
- ▶ Garaje marraduna salgai Pista Beltzean. ☎ **943741924/619677797**

[BESTELAKOAK]

- ▶ Borda egokitu bat erosiko nuke. ☎ **680178636**

[AUTOAK]

- ▶ Daelin 125cc motorra salgai. Merke. ☎ **696409904**
- ▶ Renault Megane 1.600 autoa salgai. 42.000km, ia 3 urte. Egoera oso onean. ☎ **606675314**
- ▶ Karabana salgai Mutrikun. ☎ **629415984**
- ▶ Audi A4 2.5TDI 150 zaldi. 1998koa. Automatikoa. 140.000km. ☎ **630975501**

LANA

ESKAERA

- Emakumea nagusiak zaindu edo garbiketarako prest. ☎ **699813826 (Beti)**
- Emakumea umeak zaindu edo dendan lan egiteko prest. ☎ **671158943 (Sofia)**
- Emakumea umeak zaindu edo dendan lan egiteko prest. ☎ **666111032 (Celia)**
- Ingeles klaseak ematen dira. Maila guztiak. ☎ **606733850**
- Enpresa eta komertzial ingeles klaseak eskaintzen dira. ☎ **696964069**
- Mutila pinturan, altzariak barmizatzen edo beste edozein lanetarako prest. ☎ **638338816**
- Emakumea nagusiak edo umeak zaindu edo garbiketarako prest. ☎ **699609190**
- Emakumea nagusiak zaindu edo garbiketarako prest. Arratsaldez. ☎ **678939382**
- Neska lanerako prest. ☎ **696204053**
- Neska lanerako prest. ☎ **669064252**

- Emakumea umeak edo nagusiak zaindu edo garbiketarako prest. ☎ **639240038**
- LH eta DBH1. eta 2. mailako kalise partikularrak emango nituzke umitik aurrera. ☎ **943742855**
- Neska lanerako prest. ☎ **660529146**
- Gizon elgoibartarra edozein lanetarako prest: baserian, nagusiak zainduz... ☎ **661225149/943531745**
- Neska umeak edo nagusiak zaindu eta garbiketa lanak egiteko prest. ☎ **626767586**
- Neska umeak edo nagusiak zaindu eta garbiketa lanak egiteko prest. Orduka, esperientziarekin. ☎ **650813847**
- Emakumea nagusiak edo umeak zaindu edo garbiketarako prest. ☎ **652446228**
- Gizona lanetarako prest. ☎ **638338816/943531608**
- Emakumea garbiketarako prest. ☎ **943742201 (13:00-17:00 edo 20:30etik aurrera)**
- Emakumea nagusiak edo umeak zaindu edo garbiketarako prest. ☎ **648603029**

- Gizona elektrizista lanetarako prest. ☎ **606612834**
- ESKAINTZA
- Ilepaindegirako neska edo mutila behar da. Esperientzia. ☎ **637302318**
- Kamareroa behar da. Asteburuetarako. ☎ **635751642**
- Hortz klinikarako harreraren lan egiteko neska behar da. Euskaraz jakitea ezinbestekoa. ☎ **647315677 (arratsaldez)**
- Sukaldari laguntzailea behar da. ☎ **943121262**
- Jatetxerako kamareroa behar da. ☎ **943121262**
- Elgoibarko enpresak proiektista eta delineaizale bat behar ditu. Curriculum-a bidali 159 posta kutxitilara. ☎ **943741662**
- Banatzailea behar da, furgoneta enpresaren kontu. ☎ **627597222**
- Londresen bizi den familia euskaldunak au-pair bat behar du umeak zaintzeko. ☎ **667710753 (Nora)**
- Arratsaldetan ume bat zaintzeko pertsona behar da. ☎ **639180184**

- Kamareroa behar da. ☎ **627597222**
- Umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko pertsona behar da. ☎ **659399824**
- Bitxiak, baruko erropak eta lurin produktuak saltzeko jendea behar da. Irabazi onak, ez da esperientziarik behar. ☎ **607824892**
- Tabernarako kamareroa behar da. ☎ **943742595**

ABISUAK

- Katu pertsiarra oparitzen dut ezin dudalako zaindu. ☎ **647067666 (Sorkunde)**
- Eguzkitako betaurreko graduatuak aurkitu ditut. ☎ **943742855**
- Egunero Azkoitiik Elgoibarrera autoz etortzeko prest dagoen norbait behar dut. ☎ **699820820**
- Ihauterietako asteartean, otsailaren 20an, King-Kong autobus geltoki aurrean izan zen stripuko lekukoak behar ditut. Auto batek emakume bat harrapatu zuen. ☎ **670364908/650854917**



Tel: 943 74 10 11

- 📍 IKASTARO TEORIKO INTENTSIBOAK EUSKARAZ eta GAZTELANIAZ.
- 📍 ZIKLOMOTORREKO LIZENTZIA ASTEBETEAN. **AZTERKETARIK GABE!**
- 📍 IZENA EMATEAN %10EKO BEHERAPENA

Gaindi ezazu motorraren teorikoa 16 urte bete aurretik eta autoaren azterketa teorikoa 18 urte bete aurretik!

Zatoz informazio eske!

[ZORIONAK]



▶ Zorionak **Garazi** hilaren 26an 8 urte egin zenituelako. Etxeko eta bereziki, Julenen partez.



▶ Zorionak **Leire** zure 3. urtebetetzean. Muxu bat etxeko partez.



▶ Zorionak **Ioritz** asteazkenean 10 urte egingo dituzulako. Etxeko partez.



▶ Zorionak **Javier Urbietari** urriaren 4an 5 urte egin zituelako. Aiton-amona eta osaba-izeben partez.



▶ Zorionak **Maddil** Urriaren 1ean 2 urte egingo dituzulako. Muxu handi bat etxeko partez.



▶ Zorionak **Ander** igandean 6 urte egingo dituzulako. Etxeko eta bereziki, Nerearen partez.



▶ Zorionak **Daneli** Zure eguna ondo pasako zenuelakoan, muxu erraldoia Ikastolako laguntxo partez.



▶ Zorionak **Joanel** Zure eguna ondo pasako zenuelakoan, muxu erraldoia Ikastolako laguntxo partez.



▶ Zorionak **Paula** Zure eguna ondo pasako zenuelakoan, muxu erraldoia Ikastolako laguntxo partez.



▶ Zorionak **Iratxel** Zure eguna ondo pasako zenuelakoan, muxu erraldoia Ikastolako laguntxo partez.




▶ Zorionak **Diego** zure 7. urtebetetzean. Guraso, Paula eta Jorgeren partez.



▶ Zorionak **Julen** 7 urte egin dituzulako. Gurasoen eta anaiia Iker eta Asierren partez.



▶ Zorionak zuri, zorionak befi zorionak amama, zorionak befi.



▶ Zorionak **Iker, Naiara eta Markel.** Familiako partez muxu handi bat.



▶ Badakitx eta ezdakitx! Guk badakigu, heldu da bai esateko eguna. Zoriontsu izan. Earki ibiliko gatxik!



▶ Zorionak **Oihane eta Haizeal** Zuen eguna ondo pasako zenuelakoan, muxu erraldoia Ikastolako laguntxo partez.



▶ Zorionak **Eduardo eta Pilar** zuen urrezko ezteietan. Familiako partez.



▶ Zorionak **Nerea eta Maialen** zuen urtebetetzean. Familiako partez eta bereziki Ainhoa eta Beñat.

Zerbitzuak

[OKINDEGIA]



30 igandea BOLINTXO



[FARMAZIAK]

- GUARDIA** 24 ORDUZ
- 28 Yudego
 - 29 Bidasolo
 - 30 Zabaleta
 - 1 Etxeberria (*Errosario*)
 - 2 Ibañez
 - 3 Bidasolo
 - 4 Etxeberria (*Santa Ana*)
 - 5 Fernandez

* *Beiti dago guardiako farmazia Eibar/Emua zonaldean.*

KANPOKO FARMAZIAK
IBAÑEZ
Rekalde, 1 Soraluze.
Tel: 943 75 16 38

FERNANDEZ
Herriko enparantza 4, Garagarza.
Tel: 943 75 61 42

ZABALETA
Kalebaren, 9 Soraluze.
Tel: 943 75 13 84

AIASTIA (SAN MIGEL) AUZOKO JAIAK

Irailak 28, barixakua

- 18:30 Kanpai jotzea jaien hasiera adierazteko
- 19:00 Poteoa Bizikletan
- 21:30 Gazte afaria
- Afal ostean, Maialen Lujanbio eta Peñagarikano bertsolariak
- 24:00 Disko Festa
- Goizaldean "Striptease"

Irailak 29, zapatua

- 11:00 Meza Nagusia
- Ondoren, Ziarda eta Mañu bertsolariak
- 13:00 Pilota partiduak.
- Larrañaga - Loiola
- Atxotegi - Uzkudun
- Ondoren, Rakel Pujana trikitilaria
- 17:00 Artzai Txakur Txapelketa
- Euskal Herriko Arraza Libreko finala
- 22:30 Haritz eta Kezka dantza taldeen erakustaldia

Ondoren, eromeria Laket taldearekin

01:00 Bolo Txapelketa

Irailak 30, domeka

- 12:00 Meza
- 12:30 San Migelera I. Korrika Igoera
- Ondoren, Baltzola anaiak trikitilariak
- 17:00 Idi Demak
- Juan Agustin Bilbao (Erandio)
- Soarte (Elgoibar)
- Carmelo Bikandi (Berriatua)

aek
euskaltegiak 25 urte
"Euskara ulertu eta hitz egin nahi nuen, eta lortu nuen. Ikasteaz gain ondo pasatzen nuen."

Elgoibarko **aek** euskaltegia
Plaza Txikia, 3
Tel.: 943 74 13 32
elgoibar@aek.org

murrplastik

KOMERTZIAL TEKNIKOA BEHAR DA
MAKINA ERREMINTA SEKTOREAN

- Gutxieneko formazioa, 3. graduako zikloa.
- Ingelesa konstante hartuko da.

Heutegiaren arabera baldintzak eta soldadak.
Idatzi ondorengo helbidera: guinfana@murrplastik.es

murrplastik

- KABLEENTZAT KATEAK
- IDENTIFIKAZIO SISTEMAK
- KABLEENTZAT PLAKAK
- TUBOAK ETA ERRAKOREAK

Murrplastik SL - Ubarbata 78 - Pabellon 34, Poligono 27
20014 Donostia - Telefonoa 943 44 48 37 - Faxa 943 47 28 95

[28 BARIXAKUA]

17:30 KIRIBILKA PROGRAMA
2 eta 6 urte arteko haurrentzat
Plaza Handian

18:00 KUADRILLATEGI
Aurkezpena Madalan

**19:00 "BIDAIA BURDIN ARORA"
ERAKUSKETAREN
INAUGURAZIOA**
Jose Antonio Soldevillaren
erakusketa Kultur Etxeko erakusketa
gelan. Astelehenerik larunbatera;
19:00-21:00. Igande eta jai
egunetan; 12:00-14:00. Urriaren
14ra arte. Antolatzailea: Kutxaren
Gizarte Ekintza

[29 ZAPATUA]

**11:30 LUDO MASKOTAREN
AURKEZPENA**
Plaza Handian

[1 ASTELEHENA]

15:00 JARDUNALDIK
Enpresa-etorkinak jardunaldia
IMHn

[3 EGUAZTENA]

17:00 TXOKOLATADA
Errosario kaleko jaiak

17:30 HAUR JOLASAK
Errosario kaleko jaiak
Zaku karrerak, itxulapikoak,
bizikleta lasterketak... etab.

18:00 PAILAZOAK
Errosario kalean

18:00 PILOTA PARTIDAK
Kadete mailakoen partida Plaza
Handian. Antolatzailea: Lagunak

[4 EGUENA]

17:30 SOKAMUTURRA
Amoren zezenekin
Errosario kaleko jaiak
Ondoren, Mauxitxaren kalejira

**19:00 LUDOTEKA ETA
GAZTEKUEAREN IREKIERA**
Gabriel Krutzelaegi kalean

20:00 LUNTXA
Errosario kaleko jaiak
Errosario amabirjinaren parean.

[5 BARIXAKUA]

17:30 KIRIBILKA PROGRAMA
2 eta 6 urte arteko haurrentzat
Errosario kalean

18:00 PILOTA PARTIDA
Errosario kaleko jaiak
Lagunak Pilota Taldeak antolatuta
Plaza Handiko frontoian

19:00 BATUKADA
Errosario kaleko jaiak

21:15 HERRI AFARIA
Kultur Etxeko sotoan
Gelaxo orkestrak alaitua
Izena emateko: Lonbok dendan
(Errosario, 30)

**22:15 "LA TABERNA DEL
PUERTO" ZARZUELA**
Taldea: Masa Coral del
Ensanche de Bilbao
Herriko Antzokian

ZINE KARTELDEGIA

ELGOIBAR HERRIKO ANTZOKIAN



«Delirious» (Z.K.)
28, barixakua: 22:15
«Next»
29, zapatua: 19:30-22:15
30, domeka: 19:30-22:15
1, astelehena: 21:30
"Locos por el surf"
30, domeka: 16:30

EIBAR, UNZAGA

«Caotica Ana»
28, barixakua: 19:30-22:15
29, zapatua: 17:00-19:30-22:15
30, domeka: 17:00-19:30-22:15
1, astelehena: 19:30-22:15
2, martitzena: 19:30-22:15
3, eguaztena: 19:30-22:15

BARREnek ez du gerta litezkeen
emanaldien aldaketen erantzukizunik.

S I N O P S I A K

«Next» (Z.K.)

Zuzendaria: Lee Tamahori
Antzezleak: Nicolas Cage, Julianne Moore.
Cris Johnson etorkizunean gertatu behar duena iragartzeko gai da. Bere lanerako azitia da, ezin hobeto datorkio minutu batzuk barru gertatuko dena aurrez jakitea. Diruz larri dabileanean ere erraza da irtenbidea, batez ere Las Vegas moduko hiri batean, non *black jack* mahaiak nonahi dauden. Alabaina, zenbaitetan, madarikazioa ere bada honelako dohain baten jabe izatea. Esaterako, FBIko agenteak terrorista batzuk atzemateko Crisek duen talentuaz baliatu nahiko dutenean.

Atzera hegira



1948. urteko erretratu zahar hau **Juanito Gorostizak** laga digu. "Karson" izeneko koadrila agertzen da erretratuan. Lerungo futbol zelai zeharreetan ateratako argazkia da hau. Koadrilen arteko herri osoko txapelketa jokatzeko zen garai hartan Elgoibarren eta urte honetan maila bikaina erakutsi zuen talde honek. Herrian oso ezagunak ziren gazte hauek eta San Bartolome jaietan korbata jantzita ateratzen ziren kalera. Gogora ditzagun zein diren talde honetako futbolariak:

Goian, ezkerretik eskumara: **Fermin Ruiz de Gauna**, **Abundio Eguren (t)**, **Jesus Bilbao (t)**, **Roke Arregi**, **Marcelo Ajubita (t)**, **Eulogio Etxebarria** eta **Jose Gurrutxaga**.

Makurtuta, ezkerretik eskumara: **Ramon Etxaniz**, **Sabin Perea (t)**, **Policarpo Rementería (t)**, **Jose Zubiaurre "Balle" (t)** eta **Bittor Ansola "Karson" (koadrilako lehendakaria) (t)**.

EIBAR EZKONTZA AZOKA 2007

NON: ARMERIA ESKOLAKO PABILIOIAN

(Kantoi gasolindegia parean)

NOIZ: URRIAK 6 eta 7

Larunbatean
17etatik - 21etara

Igandean
11etatik - 14etara
17etatik - 21etara

Erakustazoka

Desfilea

Dastaketak

Zozketak

**Sarrera doan jende guztiarentzat*

**Ezkontzarako behar den guztia*





ELGOIBARKO AIASTIA (SAN MIGEL) AUZOAN

2007ko JAIK

IRAILAK 28 - Ostirala "Gazteen eguna"

* Arratsaldeko 18:30ean:

Kanpai jotzea auzotarrei
jaien hasiera adieraziz

* Iluntzeko 19:00etan

POTEOA BIZIKLETAN

* 21:30ean **GAZTE AFARIA**

* Gaueko 24:00etan **DISKO FESTA**

* Goizaldera "STRIPTEASE"

* Gaueko 22:30ean **HARITZ** eta **KEZKA**
dantza taldeen erakustaldia.

* Ondoren Erromeria **LAKET** taldearekin

* 01:00ak aldera **BOLO TXAPELKETA**

Sariak:

1. saria: Markinako **EGUR LUR**ek emandako
Husqvarna Motozerra.

2. saria: 70 euro.

3. saria: 50 euro.

4. saria: 25 euro.

5. saria: 15 euro.

6. saria: Ustekabea.

Lehenengo auzotarrentzako garaikurra.

IRAILAK 29 - Larunbata

* Goizeko 11:00etan **MEZA NAGUSIA**

* Ondoren **ZIARDA** eta **MAÑU** bertsolariak

* Eguerdiko 13:00etan **PELOTA PARTIDUA**.

Lehenengo mailako afizionatuak:

LARRAÑAGA - LOIOLA

ATXOTEGI - UZKUDUN

* Ondoren **Rakel Pujana** trikitilariak.

* Arratsaldeko 17:00etan

ARTZAI TXAKUR TXAPELKETA.

Euskal Herriko arraza libreko finala.

IRAILAK 30 - Igandea

* Goizeko 12:00etan **MEZA**.

* 12:30etan San Migelera I. Korrika Igoera

* Ondoren **BALZOLA ANAIK** trikitilariak

* Arratsaldeko 17:00etan **IDI DEMAK**.

- Juan Agustin Bilbao (Erandio)

- Soarte (Elgoibar)

- Carmelo Bikandi (Berriatua)

Sariak:

1. saria: 900 euro, garaikurra eta mantak.

2. saria: 800 euro eta garaikurra.

3. saria: 700 euro eta garaikurra.

Laguntzailea:



**Elgoibarko
udala**

Oharra:

Aparkalekua egongo da. Antolatzaileak ez dute gerta daitezkeen ezbeharren erantzunkizunik hartuko.

Zarzuela



LA TABERNA DEL PUERTO LA CORAL DEL ENSANCHE

Sarrerak salgai
Kultura Sailean goizez,
eta arratsaldez
Gazte Informazio Bulegoan
8,5 eurotan.



URRIAK 5, OSTIRALA
22:15ean

HERRIKO ANTZOKIAN



KULTURA SAILA



FORU ALDUNDIA

ESTREINALDIA!!

HANDITAN URTEENTZAKO ANTZERKIA *Glu Glu Producciones*

3-8 urte bitarteko haurrentzat

Urriak 7, igandea
16:30ean
Herriko Antzokian



EUSKO JAURLARITZA



SAREA